



EBAZPENA, 2014ko uztailearen 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez ondoren zehaztutako deialdiko 6.4 artikulua ezarritakoaren arabera aurkeztutako eskaerak behin betiko ebazten dira. Deialdia hau da: 2013-2014 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen eskola-garraioko banan-banako diru-laguntzetarako deialdia.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuaren 2013ko azaroaren 27ko Aginduaren bidez, 2013-2014 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraioko banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2013ko abenduaren 16ko EHAA).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuaren 2014ko ekainaren 4ko Ebazpenaren bidez, behin-behinean ebatzi zen aipatutako deialdiko 6.4 artikulua ezarritakoa, eta 2014ko ekainaren 18an argitaratu zen "euskadi.net" Web-eko iragarki taula elektronikoan. Halaber, alegazioak egiteko epea ezarri zen.

Alegaziorik aurkeztu ez denez gero eta aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko ikasleen diru-laguntzak esleitzea behin betiko.

Bi mila, seiehun eta hogeita hamalau koma hirurogeita sei euro (2.634,66 €) diru-kopurua esleitzea.

Bigarrena: Deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eta izan ez diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.net" Web-eko iragarki taula elektronikoan, interesdunak jakinean egon daitezten.

Hirugarrena: behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.net" Web-eko iragarki taula elektronikoan ebazpen honen berri ematen den egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko uztailearen 3an.

Olatz Garamendi Lande
La Viceconsejera de Administración y Servicios

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA